



TEACHINNBOT PROIEKTUAREN AURKEZPENA

ALECOP, IDEABLE SOLUTIONS, HEZI ETA IKASI eta ABAO KOMUNKAZIO AGENTZIA enpresak **TeachInnBot** izeneko ikerketa-proiektu berritzaile bat garatzen ari dira ISEA ikerketa-zentroarekin batera. Ikaskuntza Pertsonalizaturako Adimendun Sistema Berritzaile bat Garatzea eta Baliozkotzea da ikerketa-proiektuaren xedea, adimen artifizialeko teknologietan oinarrituta. Ikaslean zentratutako irakaskuntza-ikaskuntza estrategia berriak ezartzearen markoan kokatzen da hori guztia.

Pertsonen egungo ikaskuntza-prozesuak hobetzeko **ikuspegi berritzailea eskainiko du TeachInnBot-ek, txat bidezko hainbat laguntzaile kognitiboren** (chatbot) bidez. Horiek, hizkuntza naturalaren bitartez, **“adimendun tutore birtual”** gisa jokatuko dute. Tutore birtual horiek **modu integralean gidatuko** dituzte ikasleak prestakuntza-prozesu osoan zehar; haien zalantzak argituko dituzte, arazoak konpondu, haiekin interakzioa izan, zeregin eta jarduera jakin batzuk proposatu, haien aurrerapenak monitorizatu, prestakuntza-edukiak haiei moldatu, arazo posibleak hauteman eta motibatu.

TeachInnBot-ek ikuspegi holistikoa izango du; aintzat hartuko ditu prestakuntza-prozesuaren **errealitateak eta testuinguruak** (prestakuntza arautua, profesionala, informala, etengabea) eta prestakuntza-prozesuak gertatzen diren lekuak (gelan, etxean, lanean), baita prozesuan **parte hartzen duten eragile** guztiak ere (ikaslea, irakaslea, gurasoak, enpresa).

Hori lortzeko, Adimen Artifizialeko teknologietan oinarritutako hainbat tresna barne hartuko dituen Plataforma bat garatuko du **TeachInnBotek:** Chatbotak, PLN (Hizkuntza Naturalaren Prozesamendua), Machine Learning eta Big Data. SAAS eredupean (Software as a Service) eskainiko du plataforma, prestakuntza-prozesu batez arduratzen diren instituzioek eta eragileek (ikastetxeak, unibertsitateak, prestakuntza-enpresak, etab.) erabili ahal izateko **ikaskuntza-ibilbide pertsonalizatuak** sortzean.

TeachInnBot proiektua 2021ean hasi da eta 2023an amaitzea aurreikusten da. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak finantzatu du proiektua, HAZITEK programaren barruan.

HAZITEK – ENPRESETAKO I+G BULTZATZEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO PROIEKTUA (Espediente-zenbakia: ZL-2021/00215)

EUSKO JAURLARITZAK ETA EUROPAR BATASUNAK KOFINANTZATUTAKO JARDUKETA, ESKUALDE GARAPENENKO EUROPAKO FUNTSAREN BIDEZ 2021-2027 (FEDER)



Europar Batasuna
Unión Europea

**Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)**

"Una manera de hacer Europa"

**Eskualde Garapenerako
Europar Funtsa (EGEF)**

"Europa egiteko modu bat"



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO